

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroak dira edozein negozio ereduren motorra, beraz, gu horretan zentratuko gara. Zerbitzua ia mundu guztiaren eskura egon arren, honako ezaugarriak dituzten pertsonetan oinarrituko gara:

Lehenik eta behin, Espainiako estatuan bizi direnentzat soilik izango da hasiera batean. Aplikazioa berria izango denez, ez ditugu arazoak nahi, beraz, Espainian bizi diren herritarrentzako soilik izango da, arazoak murrizteko helburuarekin. Aplikazioak arrakasta izatekotan, beste herrialdeetara zabaltzeko aukera eskuartean izango genuke.



Bestalde, Trynow ez da izango profil mota guztientzako aplikazioa. Uste dugu modazaleak diren pertsoneri erabilgarria egingo zaiela eta baita teknologia erabiltzen dakitenei ere. Jantzkerari garrantzia ematen dieten pertsonak deskagartuko dutela Trynow uste dugu, eta ez dendara iritsi edo dendako aplikaziora sartu eta ikusten duten lehenengo gauza erosten dutenak. Horrek ez du esan nahi profil mota hori betetzen ez dutenak debekatua izango dutela Trynow erabiltzea, baina guk modazaleak direnentzat eta teknologian adituak direnentzat bideratu dugu, baita jarraian aipatuko ditugun higie arazoak dituztenak, denbora ez dutenentzat etab.

Aplikazioa jaisteko 18 urte baino gehiago eduki beharko dituzu, adin txikikoa izanez gero, heldu batek sartu beharko ditu bankuko datuak (aplikazioa ordaintzeko) eta aplikazioa jaitsi adin txikikoaren mugikorrean. Gure gomendioa 14 urte baino gehiagok dutenek erabiltzea izango litzateke, uste baitugu aplikazioa erabilgarria izaten hasten dela adin hauetan, modaren alorrarekiko kontzientzia gehiago hartzen dugun adina baita 14 urtekoa.

Aipatutakoak kontuan hartuta, laburbilduz, aplikazioa Espainiako klase sozial ertain edota altuko 14 eta 50 urte bitarteko pertsoneri bideratuta dagoela azpimarratu nahiko genuke.

Momentuz, helduentzako arropa soilik probatzeko balioko duen aplikazioa izango da, hau da, umeen arropa ez dugu salduko (Zara-n adibidez, ZaraKids sekzioa ez da eskuragarri egongo). Bezero guztiengan pentsatzen dugunez, arrakasta izango balu, umeen sekzioa irekiko genuke, baina horrek urte pare bat eramango lizkiguke. Talde inklusibo bat garenez, bai "emakumezkoen" bai "gizonezkoen" sekziara joateko sarbidea ahalbidetuko genuke sexu guztietako pertsoneri, hau da, emakumezko batek gizonezkoen sekzioko kamiseta bat erosi nahi izango balu, ez luke arazorik izango, inondik inora ere ez.

Horretaz gain, aplikazioa profil mota bati dago lotuta. Gehienbat eskrupulosoak diren pertsoneri. Gehienetan, aldagelak zikinak egoten dira, beraz gure aplikazioarekin arazo hori desagertu egingo litzateke.

Halaber, denbora ez duten pertsoneri zuzenduta dagoen aplikazio bat ere bada, haien bizitza errazteko helburuarekin sortua. Etxetik erostea askoz ere erosoagoa izango litzateke eta erosi nahi duzun jantziaren neurria ongi datorkizula ziurtatuko zenuke. Aplikazio honi esker beraien erosketa denbora murriztu egingo lukete; hortaz, arropa gehiago erosiko lukete.



Azkenik, aplikazioan dauden hainbat marketako arropa probatzeko aukera emango diegu urruti bizi diren pertsoneri. Batzuetan hainbat arrazoiengatik, adibidez, bizitokiarengatik, hainbat pertsona ezin dira joan jantzia probatu nahi duten denda gerturaino. Beraz, Trynow-ekin arazo hori desagertu egingo litzateke eta gure bezeroak poztuko genituzke.

